



burujabetzen eguna urriak 25 Plaza Berrin

Hernani Burujabe herriratzeko eguna

Hernani Burujabe proiektuak lau urte bete berri dituen honetan, hirugarren burujabetzen eguna izango da urriaren 25ekoa. Urtez urte ospatzeko gehiago baitago, baita ikasteko ere.

Prozesu honen baitan garatu diren burujabetzak izan dira protagonistak: elikadura, energia, etxebizitza, bioaniztasuna, moneta, telekomunikazioak eta zaintza,

eta horietako bakoitzean elkarlan publiko-komunitario-ekonomikoaren bidez lortutako emaitzak plazaratu dira.

Hernani Burujabek, ordea, zentzua izango du proiektu guztiok betaurreko feminista, euskaldun, antiarrazista, ekologista eta berdinzalea jarrita eraikitzen badira.

Oinarri horien alde urte luzetako defentsa egin delako dakigu hori

eta, horregatik, bide horretan Hernaniko hainbat eragilek egindako lana eskertzeko, eta elkarren arteko sareak ehuntzeko, Plaza Berrin elkartuko gara ondorengo eragileak: **AEK, Dobera, Burrunba, Amher, Harrotzen, Stop Kaleratzeak, LAB, ELA, Zero Zabor, Gu geok, Altxa Burua, Jangela Etzi, Enherkom, Herrilur, Henase, EHKom, Etxegura, Ekhilur, Sagarreta, Maitelan eta Auzozaintzako eragileak.**

Egitaraua

11:30 | Zapotxin pailazoaren eskutik, Hernani Burujabeko sektore ekonomikoen zein Hernaniko beste hainbat eragileren lana ezagutuko ditugu.

12:30 | *Zaintzaldia* egitasmoari hasiera emango dio argazki herrikoi batek.

Jarraian, Herrilur kontsumo elkartearen eskutik hamaiketako, trikitilariak girotuta.

13:15 | Argazki lehiaketaren epai mahaiak sariak banatuko ditu.

13:30 | Andoni Rekondo eta Eli Pagolak bertso saioa eskainiko dute.

**PALESTINAN BIZI DUTEN
EGOERAREN LARRITASUNA
IKUSIRIK, BILBON 17:30tan
AURREIKUSITA DAGOEN
MANIFESTAZIOAREN DEIALDIA
GURE EGITEN DUGU.**

**GOIZEAN HERNANIN ETA
ARRATSALDEAN DENAK
BILBORA!**

zaintza

BAT EGIN ZAINZALDIAREKIN!

Urriaren 25tik 31ra, *Zaintzaldia* ekimena antolatuko du Eltzekoa herritar taldeak. Komunitatearekiko jarrera aldatzeak ze onura ekar dezakeen probatzeko astea izatea nahi dute.

Hala, 'Auzozain' izango da astebetetz arduratza txiki batzuk hartzera animatzen den bizilaguna: bizilagunen izenak ikasi eta agurtzera animatzea, auzoko kaleetatik ibiltzeko denbora hartzea, laguntza eskatu eta eskaintzea...

Izena emateko, herrian zehar jarriko diren postuetan, Kulturarteko Plaza Feministan edo online egin daiteke QR kode honen bidez. Aste horretan zehar, halaber, zaintzarekin lotutako kultur egitaraua egongo da.

**HATOR ELTZETIK BABAK
ATERATZERA!
ELKAR ZAINTZEN DUTEN
KOMUNITATEAK NAHI DITUGU**



ZAINZALDIA ASTEKO EGITARAUA

Urriak 25, larunbata, 12:30 | Plaza Berrin
Zaintzaldiaren aurkezpeneko argazki kolektiboa.

Urriak 26, igandea, 12:00 | Plaza Berrin
Hariak, jostorratzak eta zauriak
Heldu zein gazteentzako ipuin-ikuskizuna.

Urriak 28, asteartea, 18:00 | Kulturarteko Plaza Feminista
La ética del cuidado en nuestras organizaciones
Laura Rothekin hitzaldia.

Urriak 30, osteguna, 17:30 | Kulturarteko Plaza Feminista
Luces en sombra
Zaintza langileen egoerari buruzko dokumentala eta solasaldia.

Urriak 31, ostirala, 17:00 | Urbieta kalea
DesOrekatua. Andoni Magoa
Heldu zein gazteentzako magia ikuskizuna.

etxebizitza

Etxegurak Etxebizitza Behatokia jarriko du martxan

Behatokiaren nondik norakoak azaldu eta ekarpenak biltzeko, asanblada irekia egingo dute azaroaren 13an, 18:30ean Biterin

Hernaniko Udalak eta Etxegura elkarteak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute eta, horri esker, Etxegurak Etxebizitza Behatokia jarriko du martxan, etxebizitzaren gaiaren inguruko kontsultak bideratzeko eta Hernanin etxebizitza arloko azterketak egiteko helburuarekin.

Udaletik etxebizitza sektoreko eremu pribatuan esku hartzeko zailtasunak ikusirik, estrategia komunitarioak eraikitzeko beharra da Behatokia abian jartzeko arrazoietakoa bat. Horregatik, herritarrek parte hartzeko asanblada irekia egingo dute azaroaren 13an, 18:30ean Biterin.

Besteak beste, kolektibo zaurgarriari aholkularitza emateko, etxe hutsak mobilizatzeko edota etxebizitza eredu alternatiboan inguruko lanak egingo ditu.

energia

Enherkomek sei teilatutan eguzki plakak jarri ditu uda honetan

Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker, bazkide gehiagori Hernaniko energia banatzeko ahalmena izango du Enherkomek

Hernaniko Udalak bere titulartasuneko eraikinen estalkiak erabiltzeko lagapena eman dio Enherkom energia komunitateari, 25 urtez eguzki instalazioak ezartzeko eta kudeatzeko. Udalak kontsumituko du sortzen denaren %80a, baina herritarrekin partekatuko da gainontzeko guztia eta, honela, Enherkomek kudeaketari esker, Hernaniko energia jaso ahal izango dute herritarrek. Bestela, soberakin hori galdu egingo zen.

Gaur egun 300 bazkide inguru ditu energia komunitateak baina, hitzarmen honen bidez, jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa egin ahal izango dute; alegia, Hernaniko energia gehiago sortu eta banatu. Hernanin energia trantsizioa egiteko bidean urratsa izateko helburua du lankidetzak, beti ere herritarren parte hartzea sustatuta.